itzulpena: Anton Garikano

Georg Trakl

Munduko
Poesia
Kaierak

Georg Trakl

itzulpena: Anton Garikano

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Georg Trakl
© itzulpenarena: Anton Garikano
© edizio honena: Susa

2014ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Georg Trakl 1887an jaio zen Salzburgon, Austria-Hungaria inperioko hiri garrantzitsuenetako batean. Farmazia ikasketak Vienan egin eta horixe izan zuen ogibidea aski gazterik zela, hogeita zazpi urterekin, zendu zen arte. Krakovian hil zen, Lehen Mundu Gerraren hastapenetan. Gaztetan hasia zen droga menpekotasun arazoak izaten eta kokaina gaindosi baten ondorioz hil zen, eritegi militar batean.

XIX. mende amaiera eta XX. mende hastapenean Austria-Hungariako inperioan bizi izan zen loraldi kulturalaren partaide izan zen Trakl, eta baita inperio haren gainbeheraren testigu ere. Kontuan har dezagun Karl Kraus, Sigmund Freud, Oskar Kokoschka, Adolf Loos, Arnold Schönberg eta Ludwig Wittgensteinen garaikide izan zela, eta haietako zenbait pertsonalki ezagutu zituela. Wittgensteinen laguntza ekonomikoa izan zuen, esaterako, eta haren eta Ludwig von Ficker editorearen sostenguari esker lehenengo poema liburua argitaratu zuen: *Gedichte* (*Poemak*). Hil aurreko urtea izan zen hura, 1913a, eta hala, ez zuen betarik izan bizi zela beste poema-libururik kaleratzeko —aldizkarietan argitaratutako poema solteak zeuzkan—. Hil ondoren argitaratu zen Tra-

klen bigarren poema-liburua, *Sebastian im Traum* (*Sebastian ametsetan*).

Trakl erromantizismo germaniarraren eta espresionismoaren arteko katebegi funtsezkotzat jotzen dute adituek. Lehenengo espresionismoaren aita ponteko dugu, nolabait, Ernst Stadler eta Georg Heym poetekin batera. Zehazkiago, Friedrich Hölderlinen uberan kokatzen da eta modernismoari ateak irekitzen dizkio literatura alemaniarrean; alegia, bide egiten die Gottfried Benn, Bertolt Brecht, Paul Celan eta enparauei. Garaiko beste poeta germaniar handiaren garaikide izan zen, halaber, hots, Rainer Maria Rilkeren garaikide, zeinak Traklen heriotzan zera esan omen zuen: *Wer mag er gewesen sein?* (*Nor izan ote zen?*).

Antologia honen irakurleak erraz asko ikusiko duenez, Traklen poesiaren elementu nabarmenetako bat da izadiaren zabala nola ekartzen duen lerroetara, nola murgiltzen dituen letra artean naturako kolore, landare, bazter gisa guztietakoak. Etxe barruan kokatua den poema batean ere, “Gela abandonatu batean” poeman, ikusi ahalko dugu natura nola sartzen den zirrikitu orotatik. Poemetarik ugari dira istant labur baten irudikapen poetiko zehatz, aberats, baina

era berean soila, zarata handirik gabea. Aitzitik, irakurleak halako desosegu sentipena jasoko du maiz. Ez da hondamendi alimalekorik deskribatzen, baina sumatzen da sumatu pieza guztiak ez daudela beren lekuetan. Haustura moduko bat ageri da, ni poetikoa eta haren inguruaren arteko haustura modukoa. Bakardadez ehuntzen dira poema askotako lerroak, eritasuna (legenardunak), heriotza, errepikariak dira, hala nola malenkonia. Horregatik, ez da harritzekoa udazkena eta haren koloreak izatea nagusi Traklen aleetan. Gizakia, izadiarekin batera, itzaltzen ari da ezarian, hondamenera hurreratzen. Garaiko beste hainbat artistaren lanaren antzera, Traklen poesia, helarazten duen ezinegonean, gertakariei aurreratu zitzaiela ematen du. 1914. urtean hil zen Trakl, hurrengo urte eta hamarkadetan etorriko ziren zorigaitzen atarian.

Beñat Sarasola

Beleak

Bazter beltzean gora dira oldartzen
Eguerdian beleak garrasi batean.
Beren itzalaz oreina ukitu
Eta petralduta atseden hartzen.

Oi nola apurtzen duten isiltasun marroia,
Non soro bat estasiaturik dagoen,
Susmo garratzak dituen andre baten antzera,
Eta liskarrean aditzen zaie

Nonbait usaindutako hilotz batengatik,
Eta bat-batean iparrerantz hegatu
Eta desagertzen dira segizio baten antzera,
Irrikaz dar-dar dauden airetan.

Neskame gaztea

Ludwig von Ficker-i eskainia

1

Iturrian maiz, iluntzean,
Ageri da neskamea sorginduta
Ura ateratzen, iluntzean.
Suilak gora eta behera.

Pagadian belatxikiak hegan
Eta neskameak itzal bat dirudi.
Adats horia hegan
Eta patioan arratoiak txilioka.

Losintxatzen du hondamenak
Eta betazal sutuak ditu jaisten.
Belar lehorra hondamenak
Dio aurrean makurtzen.

2

Isilik ari da lanean atarian
Eta patioa hutsik dago aspaldian.
Intsusatik ari da atarian
Zozo bat kantari lantuan.

Haren isla zilartsu begira ispiluan
Arrotz ilunabarreko argitan
Eta zurbil desegiten da ispiluan
Haren araztasunaz izuturik.

Morroi bat ameslari kantuan ilunpean
Eta neskamea oinazetsu begira.
Jario gorria ilunpean.
Atean hego-haizea joka.

3

Gauez, biluzitako belardian
Sukar-ametsetan dago zorabiaturik.
Marmarka kexati haizea belardian
Eta ilargia zelatan zuhaitz artetik.

Laster izar guztiak zurbil
Eta hura ezinez leher eginik
Argizarizko masailak zurbil.
Ustel-kiratsa dator lurretik.

Kanaberek xuxurla tristea urmaelean
Eta hura hotzez uzkur.
Oilar bat urrun kantari. Urmaelean
Goizak dar-dar gogor eta gris.

4

Sutegian burrunban mailua
Eta hura ate ondoan badoa.
Gori-gori astintzen du morroiak mailua
Eta hura hilda bezala begira.

Ametsetan bezala jotzen du morroiaren barreak;
Eta sutegirantz egiten du balantza,
Lotsarazita apaltzen du barreak,
Mailua bezain gogor eta latzak.

Barruan dirdira argiz txinpartak
Eta ezinez imintzioka
Heldu nahi erotutako txinpartak
Eta zorabiaturik jotzen du lurra.

5

Ahul etzanda ohean
Esnatu da kezka eztiz
Eta ikusten ditu zikindutako ohean
Urrezko argiz estalian,

Hereze-loreak leihoan
Eta zeru urdinxka oskarbia.
Haizeak darabil aldizka leihoan
Ezkila baten errepika herabea.

Itzalak irristan burkoan,
Jo du eguerdiak poliki
Eta hura arnasestuka burkoan
Eta ahoak zauri bat dirudi.

Arratsean hegan odolduriko oihalak,
Hodeiak baso mutuen gainetan,
Bildu ditu beltzezko oihalak.
Txolarre zalaparta soroetan.

Eta hura zuri-zuri etzanda ilunpean.
Sabai azpian urruma baten hotsa.
Hilotz bat bezala sasi eta ilunpean
Euliek haren ahoan burrunba.

Ameslari zabaldu dira herrixkan
Dantza- eta biolin-doinuak,
Hegan dabil haren begitartea herrixkan,
Adatsak adar biluzietan astintzen.

Erromantzea gauez

Bakartia izarpean doa
Gauerdi isilean barrena.
Mutikoa nahasirik ari da esnatzen,
Begitartea ilargian gris erortzen.

Tuntuna ilea askatuta negarrez
Leihoan, burdinartetik begira.
Maitaleak miresgarri doaz
Urmaelean bidaia eztian.

Hiltzailea ardotan zurbil barrez,
Gaixoa herio-izuz jota.
Lekaimeak otoitz urraturik eta biluz
Salbatzailearen gurutze aurrean.

Ama lotan goxo kantari.
Haurra bakean gauari so
Begiak egiaz beteak.
Algara-hotsa putetxean.

Beheko sotoko kandelargitan
Hildakoa esku zuriz ari da pintatzen
Isiltasun isekati bat horman.
Lokartua oraindik xuxurlan.

Hostoarte gorri gitarraz betean...

Hostoarte gorri gitarraz betean
Nesken adats horia haizean
Ekiloreak dauden hesian.
Urrezko gurdi bat doa hodeiartean.

Itzal marroien patxadan mutu daude
Zaharrak, elkar ergel besarkatuz.
Umezurtzak bezperetan gozo kantari.
Gandu horietan euliek txistu.

Errekan andreak garbiketan oraindik.
Oihal esekiak kulunkan.
Neskatila, nire aspaldiko kutuna,
Berriro dator gris ilunabartsuan barrena.

Zeru epeletik txolarreak amiltzen
Zulo berde ustelez beteetara.
Gosetuak suspertu dela uste du
Ogia eta espezia garratzak usaintzean.

Musika Mirabell-en

Bigarren bertsioa

Iturri bat kantari. Hodeiak geldirik
Urdin garbian, zuri, eme.
Pentsakor isil dabil jendea
Arratsean lorategi zaharrean.

Uhertu da arbasoen marmola.
Txori ilara bat urrutirantz.
Fauno bat begiak hilda so
Ilunpera irristan doazen itzalei.

Zuhaitz zaharretik hostoak gorri jausi
Eta zirimolan datoz leiho zabaldutik.
Barruan su-distira bat piztu
Eta marrazten ditu beldurrezko mamu hitsak.

Arrotz zuri bat etxera sartu da.
Txakur bat lasterka korridore hondatuetan.
Neskameak lanpara bat itzali,
Sonata-hotsak gauean.

Arratseko malenkonia

...Basoa, zabal-zabal zendua...
Itzalak inguruan, hesien gisan.
Gerizpetik oreina dardarka irten,
Erreka leun-leun badoa

Eta atzetik garoak eta harri zaharrak
Eta distira zilartsua hostoartean.
Laster aditzen da zintzur beltzetan...
Agian, izarrak keinuka ari direla.

Ordeka ilunak neurrigabea dirudi,
Han-hemen herriak, zingira eta urmaela,
Eta zerbait sua iruditzen zaizu.
Leinuru hotza darie bideei.

Zeruan joan-etorria igartzen da,
Txori basatien tropa bat badoa
Lurralde haietara, ederrak, bestelakoak.
Kanaberaren astindua gora eta behera.

Neguko ilunabarra

Max von Esterle-ri eskainia

Metalezko zeru beltzak.
Ekaitz gorrietan barrena doaz
Arratsean bele gose amorratuak
Parke gainetan zurbil eta biluz.

Lainoartean argi bat izozturik;
Eta Satanen biraoen aurrean
Biratu eta jaisten dira
Lehen halako zazpi.

Ustelean gozo eta zeken,
Mokoek isilik ebaki.
Etxeek mehatxu hur eta mutu;
Argia antzokian.

Eliza, zubi eta ospitale
Ilunsentian izugarri.
Izara odolduak belaontziak
Kanalean zehar harrotzen.

Rondel

Joan da egunen urrea,
Arratsaren marroi eta urdin kolorea:
Artzainaren txirula emeak hil dira
Arratsaren marroi eta urdin kolorea
Joan da egunen urrea.

Emakumeen bedeinkazioa

Zure damekin zoaz pasieran,
Eta herabe egiten duzu barre:
Estutasunezko egunak iritsi dira.
Zuriz zimeltzen da mitxoleta hesian.

Zure sabel eder gurituaren eran
Urretsu umotzen da mahastia muinoan.
Urruti egiten du urmaeleko ispiluak argi
Eta segak kirrinka soroan.

Zuhaixketan behera ihintza,
Hostoen jario gorria.
Bere emazte maitea agurtzera
Datorkizu mairu bat marroi eta garratz.

Hiri ederra

Plaza zaharrak eguzkitsu isilik.
Urdin eta urrean sakon josiak
Lekaime leunak ameslari presaka
Pago sargorien pean isilik.

Marroi argitutako elizetan
Herio irudi aratzak begira,
Printze handien armarri lerdenak.
Koroen distira elizetan.

Zaldiak uretan gora iturrian.
Lore-atzaparrek zuhaitzetatik mehatxu.
Mutikoak ametsez nahasi jostatzen
Arratsean isilik hor iturrian.

Neskak zutik daude atarietan,
Bizitza koloretsuari begira herabe.
Ezpain umelak dardarka
Eta zain atarietan.

Ikaraz hegatzen da ezkila-hotsa,
Martxa-erritmoa eta zaindarien oihuak.
Arrotzak harmailetan erne.
Goiko urdinean organo-hotsa.

Musika-tresna ozenak kantari.
Lorategiko hosto-mugetan zehar
Lerratzen da dama ederren barrea.
Ama gazteak isil kantari.

Ezkutuan haize ematen du loraturiko leihoetan
Intsentsu-, galipot- eta lila-usainak.
Betazal nekatuak zilartsu dir-dir
Loreartetik leihoetan.

Gela abandonatu batean

Leihoak, lore-sail nabarrak,
Organo baten doinua barrenean.
Horma-paperetan itzalak dantzan,
Errenkada bitxi zoroenean.

Zuhaixkak sutan haize ematen
Eta eltxo-hodei bat dilindan.
Urrutiko soroan segak mozketan
Eta ur zahar baten eresia.

Noren arnasak egiten dit laztan?
Enaren arrasto zoroak.
Isil-isilik hortxe mugagabean
Dario urrezko oihana.

Lore-sailak sugarretan.
Errenkada zoroaren estasia
Horma-paper horixketan.
Atarian norbait barrura begira.

Intsentsu-usain gozo eta udare
Eta kristala eta kutxa iluntzen.
Astiro makurtzen da bekoki beroa
Izar zurien aurrean.

Elis mutikoari

Elis, zozoak baso beltzean oihu egitean,
Horra zure gainbehera.
Zure ezpainek haitz-iturri urdineko freskura edaten
dute.

Utzi, zure bekokitik emeki odoletan doazenean
Antzinako elezaharrak
Eta txori hegaldien zantzu ilunak.

Baina zu urrats leunez zoaz gauera,
Mahats purpuraz betera,
Eta besoei ederrago eragiten diezu urdinean.

Arantzarte bat hoska,
Zure ilargizko begiak dauden lekuan.
Oi, noiztik zaude, Elis, hilda.

Zure gorputza hiazinto bat da,
Non monje batek bere argizarizko hatzak sartzen
dituen.
Leize beltz bat da gure isiltasuna,

Handik noizbehinka animalia otzan bat irten
Eta astiro apaltzen ditu betazal astunak.
Zure lokietara tantaka doa ihintz beltza,

Izar erorien azken urrea.

Ekaitz-arratsa

Oi arrats-ordu gorriak!
Leiho irekian dardaraz distiratzen dira
Mahats-hostoak urdinari nahasi josiak,
Barruan dute izuaren mamuek habia.

Zangetako kiratsetan hautsa dantzan.
Haizea kristalei uluka eraso.
Zaldi basatien talde bati
Tximista hodei ilunak akuiluka.

Urmael-ispilua ozen pitzatu da.
Kaioek garrasi leiho ertzetan.
Suzko zalduna muinoan lauhazka
Eta sutan lehertu da izeietan.

Gaixoak garrasika ospitalean.
Gauak urdinxka astintzen ditu lumak.
Dirdiratsu ekin dio bat-batean
Teilatuan behera euriak.

Arratseko musa

Leiho loratura berriro dator kanpandorreko itzala
Eta urrezkoa. Bekoki beroa patxadan eta isilik itzaliz
doa.
Iturri bat jausten da gaztainadarren ilunpean;
Hantxe sentitzen duzu: ongi! akidura mingarriz.

Udako fruituak eta girlandak hustu dira azokatik.
Harmoniaz bat dator ateen handitasun beltzaxka.
Melodia eztien doinuak lorategi batean,
Non lagunak elkartzen diren jatordu ostean.

Arimak atseginez entzuten ditu azti zuriaren ipuinak.
Arratsaldean moztutako garia txistuka inguruan.
Pazientziaz dago isilik bizitza gogorra etxoletan;
Ukuiluko kriseiluak argitzen du behien loaldi gozoa.

Airez mozkorturik betazalak laster apaldu
Eta emeki zabaltzen dira konstelazio arrotzen aurrean.
Haritz zaharren ilunpetik Endimion agertu
Eta makurtzen da ur penatuen gainean.

Gaizkiaren ametsa

Lehenbiziko bertsioa

Gong baten doinu urre-marroiak ahitzen...
Maitale bat iratzarri da gela beltzetan
Masailetan sugarrak, leihoan dar-dar.
Ibaian belak, mastak eta sokak distiratsu.

Monje bat, andre haurdun bat jendartean.
Gitarrek zarrasta, brusa gorriek dirdira.
Gaztainondoak urrezko argitan sargoritsu zimeltzen;
Beltz zutitzen da elizen handitasun tristea.

Gaizkiaren espiritua maskara zurbiletatik begira.
Plaza bat izugarri eta ospel arrasten;
Iluntzean irletan zurrumurrua hasten.

Txori-hegaden seinale nahasiak irakurtzen dituzte
Legenardunek, agian gauez ustelak.
Parkean anai-arrebak elkar ikaraz ikusten.

Kanta espirituala

Seinaleak, brodatu arraroak
Marrazten ditu lore-sail dardarti batek.
Jainkoaren arnasa urdinak haize
Lorategiko sala barrura,
Alai barrura.
Mahasti basatian gurutze bat zutik.

Entzun herrikoen poza,
Lorezaina harresi ertzean segan,
Organo bat joka otzan,
Nahasiz doinua eta urrezko distira,
Doinua eta distira.
Maitasunak ogia eta ardoa bedeinkatzen ditu.

Neskatilak ere barrurantz
Eta oilarrak azkenari kukurruku.
Burdin sare herdoildu bat emeki doa
Eta arrosazko koroa eta ilaretan,
Arrosazko ilaretan
Maria zuri eta eder atsedenean.

Eskalea hor harri zaharrean
Otoitzean hilda bezala,
Artzain bat muinotik astiro doa
Eta aingeru bat kantari zuhaizpean,
Ondoko zuhaizpean
Haurrak lo harrarazten.

Udazkenean

Ekiloreak hesia argitzen,
Gaixoak eguzkitan isilik eserita.
Soroan andreak lanean kantari,
Komentuko ezkilak joka.

Txoriak zeuri urrutiko ipuinak kontatzen,
Komentuko ezkilak joka.
Biolin-hots eztia dator patiotik.
Gaur dira mahats marroia zapaltzekoak.

Horra gizakia gozo eta pozik.
Gaur dira mahats marroia zapaltzekoak.
Hildakoen gelak zabal-zabalik
Eta eguzki-printzaz eder margotuak.

Arratsean ene bihotz

Saguzarren garrasia arratsean.
Bi zaldi beltz zelaian jauzika.
Astigar gorriak zurrumurru.
Bidaztiari ostatua agertu zaio bidean.
Bikainak dira ardo gaztea eta intxaurrak.
Bikaina: mozkorturik balantzaka ibiltzea
ilunabarreko basoan.
Adarrarte beltzetik ezkila mingarrien hotsa.
Aurpegi gainera ihintz tantak.

Nekazariak

Leiho aurrean hoska berde eta gorri.
Kez belzturiko sala xumean
Morroi-neskameak bazkaritan;
Eta ardoa banatzen eta ogia zatitzen.

Eguerdiko isiltasun sakonean
Hitz bakanen bat jausi ohi da.
Zelaietan distira etengabea
Eta zerua berunezko eta zabal.

Sutondoko garrak imintzioka
Eta euli-multzo bat burrunban.
Neskameak adi-adi tuntun eta mutu
Eta lokietan odola taupaka.

Eta batzuetan begirada irrikatsuak elkartzen dira,
Animali lurrunak iristean barrura.
Morroi bat tonua aldatu gabe errezatzen
Eta oilar bat atepean kantatzen.

Eta berriro sorora. Izuak jotzen ditu
Sarritan galburu-zarata orrolarian
Eta segak kirrinka doaz
Atzera eta aurrera mamuen erritmoan.

Arimen eguna

Karl Hauer-i eskainia

Gizontxoak, andretxoak, lagun tristeak,
Loreak urdin eta gorri ari dira zabaltzen
Beren hilobi lotsati argituetan.
Herioren aurreko panpina gaixoak.

Oi! Nola dauden beldur eta umiltasun osoz,
Itzalen antzera zutik zuhaixka beltzen atzean.
Udazken-haizean kexatzen da jaiogabearen negarra,
Eta argiak ere ikusten dira noraezean.

Maitaleen hasperenak adarretan xuxurla
Eta hor ama haurrarekin usteltzen.
Bizien dantzaldiak irreala dirudi,
Eta arrats-haizean miresgarri sakabanatua.

Haien bizia nahasia da oso, oinaze hitsez betea.
Erruki, Jauna, andreen minaz eta ezinaz,
Eta herio-lantu etsitu hauez.
Bakartiak isilik doaz izarren salan.

Malenkonia

Hirugarren bertsioa

Itzal urdinxkak. Oi begi ilunok,
Luzaz so ditut pasaeran.
Gitarra doinu emeek laguntzen diote udazkenari
Lorategian, lixiba marroitan deseginean.
Herioren ilunpe zorrotza ari dira prestatzen
Esku ninfatsuak, bular gorriei tiraka
Ezpain ustelduak eta lixiba beltzetan
Eguzki-gaztetasunaren adats bustiak irristan.

Biziaren arima

Hostoak emeki iluntzen dituen hondamena
Basoan bizi da isiltasun zabalean.
Herrixka bat mamu eran makurtzen.
Arrebaren ahoa adar beltzetan xuxurlan.

Bakartia laster igaroko da,
Agian artzain bat bidezidor ilunetan.
Animalia bat astiro irten da zuhaitz-arkupetik,
Betazalak jainkotasunaren aurrean zabalduz.

Ibai urdina eder doa behera,
Arratsean hodeiak dira ageri;
Arimaren isila aingeruzkoa.
Imajina iragankorren akabera.

Udazken transfiguratua

Boteretsu amaitu da urtea
Urrezko ardo eta baratzetako fruitu.
Inguruko basoak miresgarri isildu
Eta bakartiaren bidelagun dira.

Orduan nekazariak dio: ondo zegok.
Zuek arrats-ezkilok luze eta bare
Azkeneraino adore ematen.
Hegazti-lerro batek bidean adio.

Maitasunaren aro leuna.
Txalupan ibai urdinean behera
Eder lotzen zaion irudia irudiari...
Bakean eta isilik behera.

Basoko txokoa

Karl Minnich-i eskainia

Gaztainondo marroiak. Isilik lerratzen dira
adinekoak
Arrats bareagoan; hosto ederrak emeki ihartzen.
Kanposantuan zozoa lehengusu hilarekin txantxetan,
Maisu ilehoria Angelaren bidelagun.

Herioren irudi aratzak eliz leihoetatik begira;
Baina atze odoltsua negargarria da eta hitsa.
Atea itxita dago gaur. Sakristauak dauka giltza.
Lorategian arreba jator ari da hizketan mamuekin.

Soto zaharretan ardoa ontzen, urre, garden.
Sagar-usain gozoa. Zorionaren distira urruti ez.
Arrats luzean haurrak ipuinak entzuten pozik;
Eromen eztiari sarri ageri zaio urrea, egia.

Hereze-lorez betetako urdin jarioa; kandelen argia geletan.

Umilentzat prest dago lekua.

Patu bakarti bat baso ertzean behera;

Hona gaua, atsedenaren aingeru, atarian.

Neguan

Soroa argitan zuri eta hotz.
Zerua bakarti eta berebiziko.
Belatxikiak urmael gainean jira-biran
Eta ehiztariak basoan behera.

Isiltasun bat bizi da gailur beltzetan.
Su bat ziztuan doa etxoletatik.
Aldizka lera baten hotsa urruti
Eta astiro igotzen da ilargi grisa.

Orein bat mugan emeki odolusten
Eta beleak zanga odoltsuetan zipriztintzen.
Ihiak dar-dar horixka eta zut.
Izotza, kea, urrats bat zuhaizti hutsean.

Familiako album zahar batean

Beti itzultzen zara, malenkonia,
Oi arima bakartiaren goxotasun.
Urrezko egun baten azken txingar.

Minaren aurrean umil makurtzen da pazientziaduna
Harmoniaz eta eromen eztiz hoska.
Begira! Ilunabarra.

Gaua berriro dator eta hilkor bat lantuan
Eta beste batek erruki dio.

Udazken-izarren azpian ikaraz
Urtetik urtera burua apalago.

Eraldatzea

Lorategietan zehar, udazkentsu, gorri-kiskalian:
Horra bizitza kementsu bat bare.
Gizakiaren eskuetan mahatsondo marroiak,
Min leuna begiradan amiltzen doala.

Arratsean: lur beltzean zehar urratsak
Pago gorrien isilean agertzen.
Animalia urdin bat herioren aurrean makurtu nahian
Eta jantzi huts bat beldurgarri hondatzen.

Lasaitasuna ostatu baten aurrean jotzen,
Begitarte bat belarretan mozkor jausita.
Intsusa-fruituak, txirulak samur eta edanda,
Hereze-loreen usaina, emetasuna ihinztatzen.

Kontzertu txikia

Gorri batek hunkitzen zaitu ametsetan bezala...
Zure eskuen artetik eguzkiaren distira.
Bihotza sentitzen duzu pozez zoratua
Gertaera baterako isilik prestatzen.

Zelai horiak eguerdira jarioan.
Ozta-ozta aditzen duzu kilker kanta,
Segalariaren kolpe sendoa.
Urrezko basoak xaloki isiltzen.

Putzu berdean usteldura gori.
Arrainak geldi. Jainkoaren arnasak
Goxo esnatzen du hari-musika bat ganduan.
Legenardunei sendatzeko keinuak egiten ibaia.

Dedaloren espiritua itzal urdinetan zintzilik,
Hurritz-adarretan esne-usaina.
Oraindik luze aditzen da maisuaren biolina,
Arratoien garrasia patio hutsean.

Ostatuko tapiz zatarretan
Loratu dira bioleta-kolore freskoak.
Liskarrean zendu ziren ahots ilunak,
Txirulen azken akordean Nartziso.

Gizakia

Gizakia su-leizeen aurrean jarria,
Danbor-errepika bat, gerlari ilunen bekokiak,
Urratsak odol-lainoan zehar; burdina beltzaren hotsa,
Etsia, gaua garun hitsetan:
Hemen Evaren itzala, ehiza eta diru gorria.
Argia hodeiak urratzen, azken afaria.
Isiltasun goxo bat bizi da ogi eta ardotan
Eta elkartuak hamabi dira.
Gauez garrasi egiten dute olibo-adarren azpian ametsetan;
San Tomas eskua zaurian barneratzen.

Ibilaldia

1

Arratsaldean musikaren zurrumurrua basoan.
Galsoroan txorimalo serioak jira-biran.
Bidean intsusak eztiro haizetan;
Etxe baten ñirñirra miragarri eta lauso.

Ezkai-usain bat urretan hegaz,
Zenbaki alai bat harri batean.
Zelai batean haurrak pilotan,
Zuhaitz bat inguruka hasten zaizu aurrean.

Ametsetan zaude: arreba adats horia orrazten,
Urrutiko lagun batek gutuna dizu idazten.
Meta horitu eta oker bat ihesi grisean barrena.
Eta batzuetan hegan zabiltza arin eta zoragarri.

2

Denbora badoa. Oi Helios gozo!
Oi apoen putzuko irudia gozo eta garden;
Eden bat hareatzan hondoratzen miragarri.
Zuhaixka bat altzoan berdantzak kulunkatzen.

Zeure anaia bat lurralde sorginduan hiltzen
Eta zeure altzairu-begiak so dituzu.
Horko urrean ezkai-usain bat.
Mutiko bat herrixkan sua pizten.

Maitaleak tximeletengan berriz argitzen
Eta alai kulunkan harri eta zenbaki inguruan.
Beleak jaki likits baten inguruan zalapartari
Eta zure bekokia orroka berde samurrean.

Arantzartean orein bat emeki hiltzen.
Umetako egun argi bat duzu atzetik,
Haize grisa, aldabera eta lauso
Hondamen-usainak blaitzen ilunabarrean.

3

Sehaska-kanta zahar batek larritzen zaitu.
Bidertzean andre bat haurrari bular ematen dohatsu.
Lotan oinez zoazela entzuten duzu haren iturriaren isuria.
Sagarrondo-adarretan behera sagaratze-hotsa.

Eta ogia eta ardoa gozatu ditu lan gogorrak.
Zure eskua zilartsu dabil fruituaren bila.
Rakel zendua soroetan barrena doa.
Berdea agur baketsuen keinuak egiten.

Neskame gaixoen altzo bedeinkatuak loretan,
Horko iturri zaharrean ametsetan.
Bakartiak pozik doaz bidezidor isiletan
Jainkoaren izakiekin bekaturik gabe.

De profundis

Uztondo bat euri beltzetan.
Zuhaitz marroi bat zutik bakarti.
Haize txistukari bat etxola hutsen inguruan.
Zein tristea arrats hau.

Herrixkatik aurrera
Neska umezurtz eztia galburu bakanak biltzen.
Begiak biribil eta urretsu larratzen ditu
ilunabarrean
Eta altzoa senargai zerutiarraren zain.

Etxerakoan
Artzainek gorpu goxoa aurkitu zuten
Arantzartean ustelduta.

Itzal bat naiz herrixka goibeletatik urruti.
Jainkoaren isila
Edan nuen zuhaiztiko iturritik.

Metal hotza datorkit bekokira
Armiarmak dabilzkit bihotzaren bila.
Argi bat nire ahoan itzaltzen.

Gauez txilardi batean aurkitu nintzen,
Zaborrez eta izar-hautsez betea.
Hurriztian
Kristalezko aingeruen hotsa berriro.

Tronpetak

Sahats kimatuen azpian, non haur marroiak
jostatzen
Eta hostoak hegan dabiltzan, tronpetak joka.
Kanposantu-hotzikara.
Eskarlatazko banderak astigarraren doluan behera
Zaldunak zekale-soroetan, errota hutsak.

Edo gauean artzainak kantari eta oreinak datozkie
Sutondora, zuhaiztiko antzinako dolu,
Dantzariak horma beltz batean gora;
Eskarlatazko banderak, algarak, eromena,
tronpetak.

Iluntzea

Patioan, ilunabar esnetsuz sorgindurik,
Marroi udazkenduan dabiltza gaixo eztiak.
Begirada argizaritsu biribilek gogoan dituzte
urrezko garaiak,
Amets eta atseden eta ardoz beteak.

Haien gaitza mamu eran kizkurtzen da.
Izarrak tristura zuria zabaltzen.
Grisean, engainuz eta kanpai-hotsez beterik,
Beldurgarriak nahas-mahas sakabanatzen.

Barregarri amorfoak irrist, makurtu
Eta hegan bidezidor beltz-gurutzatuetan.
Oi hormetako itzal nahigabetuak.

Besteak arkupe ilunduetan ihesi;
Eta gauez jausten dira izar-haizeko
Jasa gorrietatik, Menade amorratuen gisan.

Udaberri alaia

1

Lugorrian barrena doan errekan
Iazko ihi lehorra zutik.
Grisean barrena soinuak miragarri hegan,
Simaur beroaren hatsa airean.

Sahatsetako gerbak haizetan astiro kulunkan,
Soldadu bat bere abesti tristea ameslari kantatzen.
Belardi-zerrenda badoa haizaturik eta nekaturik,
Haur baten silueta samur eta leun.

Urkiak hor, arantzarte beltza,
Irudiak ere ketan deseginda ihesi.
Berde argia loretan eta hurrengoa hondatzen
Eta apoak jaiotzen porru berrien artean.

2

Bihotzez maite zaitut, latsari zakar.
Zeruaren urrea darama ibaiak oraindik.
Arraintxo batek pasaeran argi eman eta itzali;
Argizarizko begitarte bat darie haltzei.

Ezkilak lorategietan luze eta otzan hondoratzen
Txori txiki bat txioka zoroaren pare.
Gari leuna handituta isilik eta liluraz
Eta erleak oraindik bilketan gogotsu.

Zatoz, maite, langile nekatuagana!
Izpi epel batek jotzen dio etxola.
Basoa latz eta hits doa arratsean
Eta noizbehinka kimuak alai lehertzen.

3

Baina jaiotzear den orok eri dirudi!
Sukar-hats bat herrixkaren inguruan;
Baina espiritu goxo batek adarretatik keinu egin
Eta arima irekitzen du zabal eta larri.

Jario loratu bat eztiro-eztiro bidean
Eta jaiogabea bere atsedena zaintzen.
Maitaleak beren izarretarantz loratuz
Arnasa gauean gozoago dariela.

Bizi dena min emateraino da on eta zinezko;
Eta harri zahar batek ukitzen zaitu isilik:
Zinez! Zuekin egongo naiz beti.
Oi aho, sahats zurian dar-dar!

Hego-haizea aldirian

Arratsean lekua hutsik dago eta marroi,
Airea kirats zantarrez josia.
Zubiko arkutik tren baten trumoia...
Eta txolarreak zalapartan sasi eta hesietan.

Etxolak makurtuta, bidezidorrak sakabanaturik,
Lorategietan nahasmena eta joan-etorria,
Batzuetan mugimendu motel batean gora intziria,
Ume multzo batean soineko bat gorri hegan.

Zaborretan arratoi-koru batek maiteminez txistu.
Andreek erraiak dakartzate saskietan,
Segizio higuingarri bat zikin eta hazteriz betea,
Ilunabarraren barrutik datoz.

Eta bat-batean kanal bat odol lodia okaztatzen
Hiltegitik ibai barean behera.
Hego-haizea landare bizikor urriak ñabartzen
Eta gorria ibaian astiro arrastan.

Xuxurla bat, lo lausoan itotzen ari.
Irudiak zangetan gora brinkoka,
Agian lehenagoko bizitza baten oroitzapena,
Haize beroekin igo eta jaitsi.

Hodeiartetik distiratsu ageri dira hiribideak,
Gurdi eder, zaldun kementsuz beterik.
Barku bat labarrak jotzen
Eta arrosa-koloreko meskitak.

Arratoiak

Patioan zuri distiratzen du udazken-ilargiak.
Teilatu ertzetik itzal fantastikoak jausten.
Isiltasun bat bizi da leiho hutsetan;
Hor arratoiak isilka azaldu

Eta ziztuan doaz hara eta hona
Eta lurrun-bolada latz batek
Jarraitzen die estoldatik,
Non mamu-ilargiak dar-dar dagien.

Eta grinaz erotuta txilio egin
Eta gainezkatzen dituzte etxe eta mandioak,
Gari eta fruituz beteak.
Haize izoztuak ilunpean negarrez.

Goibeldura

Lehenbiziko bertsioa

Munduko zorigaitza arratsaldean herrari.
Etxolak hegan lorategietan marroi eta mortu.
Txinpartak firurika simaur errean,
Bi lokartu balantzaka etxerantz, gris eta hits.

Belardi idortuan haur bat lasterka
Bere begiekin jostatzen beltz eta leun.
Zuhaixketatik urrea tantaka uher eta nekez.
Gizon zahar bat triste jiratu da haizetan.

Arratsean berriro nire buru gainean
Saturno patu negargarri baten gidari mutu.
Zuhaitz bat, txakur batek atzera egin
Eta Jainkoaren zeruak balantza beltz eta biluz.

Arraintxo bat errekan behera arinka;
Lagun hilaren eskua emeki mugitu
Eta maitekor leuntzen ditu bekoki eta jantzia.
Argi bat geletan itzalak iratzartzen.

Arratsaldean xuxurlatua

Eguzkia, udazkentsu mehe eta herabe,
Eta zuhaitzetatik fruituak erortzen.
Lasaitasuna bizi da gela urdinetan
Arratsalde luze bat.

Metalaren herio-aireak;
Eta animalia zuri bat behea jotzen.
Neska marroien kanta zakarrak
Orbel artean eraman ditu haizeak.

Bekokia Jainkoaren koloreekin ametsetan,
Eromenaren hego eztiak sentitzen.
Itzalak biraka muinoan
Ertzak ustelez beltz.

Ilunabarra bake eta ardoz betea;
Gitarra tristeak tantaka.
Eta barruko lanpara gozora
Itzultzen zara ametsetan legez.

Salmoa

Bigarren bertsioa

Karl Kraus-i eskainia

Argi bat, haizeak itzalia.
Benta bat, mozkor batek arratsaldean utzia.
Mahasti bat, erreta eta beltz armiarmaz betetako
zuloekin.
Gela bat, esnez zuritua.
Hil da eroa. Hego itsasoetako irla bat,
Eguzki-jainkoari ongietorri egiteko. Danbor-
errepika.
Gizonen gerra-dantzak.
Emakumeak gerriari eragiten aihen eta su-lore
artean,
Itsasoak kantatzen duenean. Oi gure paradisu
galdua.

Ninfak joan dira urrezko basoetatik.
Arrotza ehorzten. Euri-printzak hasten dira.
Panen semea peoi itxuran,
Eguerdian lotan asfalto galdatan.

Neskatilak patio batean, pobrezia bihotz-
erdiragarriko soinekoekin.
Gelak, akorde eta sonataz beteak.
Itzalak, ispilu itsu baten aurrean besarkatzen.
Ospitaleko leihoetan sendatze bidean direnak
berotzen.
Bapore zuri batek izurri odoltsuak dakartza
kanalean gora.

Arreba arrotza berriro ageri da norbaiten amets
gaiztoetan.
Haren izarrekin jostatzen, hurriztiko patxadan.
Ikaslea, agian doble bat, leihotik begira du
aspaldian.
Atzean du anaia hila, edo jaisten da eskailera kiribil
zaharretik.
Gaztainondo marroien itzalpean zurbiltzen da
nobizio gaztearen irudia.
Lorategia ilunabarrean. Saguzarrak zalapartan
kalostran.
Etxezainaren haurrek jostatzeari utzi eta zeruko
urrearen bila.
Kuarteto baten azken akordeak. Neskatila itsua
lasterka dar-dar hiribidean,

Eta gero bere itzala harresi hotzetan haztaka,
ipuinez eta elezahar santuz
inguraturik.

Barku huts bat, kanal beltzean behera arratsean.
Asilo zaharreko goibelean giza hondarrak erortzen.
Umezurtz hilak lorategiko harresian.
Gela grisetatik aingeruak irteten dira gorotzez
zikindutako hegoekin.
Betazal horituetatik harrak darizkiela.
Elizaurreko plaza laiotz eta mutu, haurtzaroko
egunetan bezala.
Lehengo bizitzak zilarrezko zolen gainean irristan
Eta madarikatuen itzalak uren intziri artera jaisten.
Mago zuria bere hilobian bere sugeekin jostaketan.

Jainkoaren urrezko begiak isil zabaltzen kalbario
gainean.

Arrosario-kantak

Arrebari

Zoazen lekuan udazkena eta arratsa,
Zuhaizpean orein urdinaren hotsa,
Urmael bakartian arratsa.

Txori-hegaldi goxoaren hotsa,
Malenkonia zure begi gainetan.
Zure irribarre meharraren hotsa.

Jainkoak betazalak dizkizu bildu.
Gaueko izarrek, ostiral santuko ume,
Begi sabaiak nahi dizkizute bildu.

Herio hurbil

Bigarren bertsioa

Oi arrats, haurtzaroko herrixka ospeletarantz.
Sahats azpiko urmaela
Malenkoniaren hasperen kutsatuz betetzen ari.

Oi baso, begi marroiak emeki apaltzen,
Bakartiaren esku hezurtsuetatik
Egun estasiatuen purpura abailtzean.

Oi herio hurbil. Egin dezagun otoitz.
Gaur gauean burko epel
Intsentsuz horituetan askatzen dira maitaleen
gorputz-adar meheak.

Amen

Gela ustelduan hondakina irristan;
Horma-paper horietan itzalak; ispilu ilunetan
zutitzen da
Gure eskuen marfilezko tristura.

Hatz hiletan behera perla marroiak.
Isilean
Aingeru baten mitxoleta-begi urdinak zabaltzen.

Arratsa ere urdin;
Gure heriotza ordua, Azraelen itzala,
Lorategi marroi bat iluntzen.

Gainbehera

Arratsean, ezkilek bakea jotzean,
Segitzen diet txorien hegada miraritsuei,
Zerrenda luzetan, erromes dohatsuak nola,
Udazkeneko zabal gardenean desagertzen.

Lorategi ilunabartuan zehar noa
Haien patu argiagoekin amesten
Eta erloju-orratzen joanaz ohartu gabe.
Segitzen diet hodei gaineko beren bidaiei.

Orduan gainbehera-hats batek astintzen nau.
Zozoa adar biluzietan lantuan.
Mahatsondo gorriak burdinesi herdoilduetan
dardara,

Bitartean haur zurbilen herio-dantzen antzera
Iturri ilun gero eta higatuagoen ertzean
Makurtzen dira aster urdinak hotzikaraz haizetan.

Sorterrian

Hereze-usaina leiho gaixoan herrari;
Plaza zahar bat, gaztainondoak beltz eta akituak.
Urrezko printza batek teilatua urratu eta dario
Anai-arreben gainera ameslari eta nahasi.

Harraskako uretan ustela, hego-haizeak
Urruma eztia lorategi marroian; oso emeki
Ekiloreak urrea dastatu eta urtzen da.
Aire urdinean zaindariaren oihuak kirrinka.

Hereze-usaina. Hormak biluz iluntzen.
Arrebaren loa astuna da. Gaueko haizeak
Banatzen dio ilea, ilargi-distiraz hezea.

Katuaren itzala urdin eta mehar irristan
Teilatu usteletik, zorigaitzaren ertzean,
Kandela-sugarra, purpuratsu zutitzen.

Udazken-arratsa

Karl Röck-i eskainia

Herrixka marroia. Belztasun bat ageri da
Sarritan oinez horma udazkenduetan,
Irudiak: gizon nahiz andre, hilak badoaz
Haien ohea prestatzera gela freskoetan.

Hemen mutilak jostatzen. Itzal astunak zabalik
Simaur marroiaren gainean. Neskatilak
Urdin umelean oinez eta noizbehinka so
Begi gau-ezkilaz beteekin.

Bakartiak badu ostatu bat;
Arkupeen gerizpean pazientziaz zain,
Tabako-laino urretsuz bildurik.

Baina norbera beti beltz eta hurbil.
Mozkorra arkupe zaharren itzalpean oroitzen da
Txori basati urrutiratuez.

Giza oinazea

Erlojua eguzkiaren aurrean bostak jotzen...
Beldur ilun batek heltzen die gizaki bakartiei,
Arrats-lorategian zuhaitz biluziek intziri.
Hildakoaren begitartea leihoan mugitzen.

Beharbada ordu hau bertan geldituko da.
Begi hitsen aurrean irudi urdinak jira-biran
Ibaian kulunkatzen diren barkuen erritmoan.
Haizeak lekaime-ilara bat darama kaian.

Hurritzean neskatilak zurbil eta itsu jostatzen,
Lotan besarkatutako maitaleen gisan.
Agian euliak kantuan horko hilotz baten inguruan,
Agian haur bat negarrez amaren altzoan.

Eskuetatik erortzen dira asterrak urdin eta gorri,
Gaztearen ahoa arrotz eta jakintsu irristan;
Eta betazalak izu-nahasi eta isil inarrosten;
Belztasun sukartsutik ogi-usaina aditzen da.

Baita garrasi lazgarri baten irudipena ere;
Hezurren distira harresi erorien artetik.
Gela ederretan bihotz gaizto baten barre ozena;
Ameslari baten ondotik txakur bat pasatzen.

Zerraldo huts bat ilunpean galtzen.
Gela bat hiltzaileari argi zurbila eman nahian,
Bitartean farolen leherketa gaueko ekaitzean.
Ereinotzak dotoretzen du noblearen loki zuria.

Herrixkan

1

Harresi marroien artetik ageri da herrixka, soroa.
Artzain bat usteltzen harri zahar batean.
Baso ertzaren baitan animalia urdinak,
Hosto bigunak, isilera jausten.

Nekazarien bekoki marroiak. Luze jotzen du
Arrats-ezkilak; ohitura dohatsuak eder dira,
Salbatzailearen buru beltza arantzartean,
Gela freskoa, heriotzak bakea ekarrita.

Zein zurbil dauden amak. Urdina jausten da
Kristalera eta kutxara, gogoan harro gordea;
Buru zuri bat ere adin handiko makurtzen da
Bilobarengana, esnea eta izarrak edaten ari.

2

Espirituz bakarti hildako pobrea
Argizaritsu tentetu da bidezidor zahar batean.
Sagarrondoak amiltzen dira biluz eta bare
Beren fruituen kolorean, beltz ustelduan.

Lasto lehorrezko sabaia oraindik harro
Behien loaren gainean. Neskame itsua
Agertu da patioan; ur urdin baten antsia;
Zaldi-kaskezur bat ate usteldutik begira.

Ergelak zentzu ilunez esandako maitasun
Hitz bat isilduz doa zuhaixka beltzean,
Non neskamea dagoen, amets-irudi mehe.
Urdin umelean hoska darrai arratsak.

3

Hego-haizeak soildu dituen adarrak leihoan joka.
Nekazari-andrearen altzoan min basati bat azkartzen.
Besoetatik elur beltza dario;
Urre-begidun hontzak dabilzkio buru ondoan.

Harresiak ilunpe freskoan
Biluz eta lohi so. Sukar-ohean izozten
Sabel haurduna, eta ilargia hari gordin zelatan.
Gela aurrean txakur bat akabatuta.

Atetik goibel sartu dira hiru gizon
Soroan hautsitako segekin.
Arrats-haize gorriak leihoan kirrinka;
Aingeru beltz bat irten da handik.

Arrats-kanta

Arratsean, bidezidor ilunetan goazela,
Geure irudi zurbilak datozkigu aurrera.

Egarritzen bagara,
Urmaeleko ur zuria edaten dugu,
Gure haurtzaro tristeko gozoa.

Hilda, intsusen azpian hartzen dugu atseden,
Kaio grisei begira.

Udaberri-hodeiak goratzen dira hiri ospelean,
Non isilean dauden monjeen garai nobleagoak.

Zure esku meheak hartu nituenean
Emeki zabaldu zenituen begi biribilak,
Aspaldi hartan.

Baina harmonia ilunak arimari erasatean,
Zuri agertzen zara lagunaren paisaia udazkenduan.

Hiru begirada opalo batean

Erhard Buschbeck-i eskainia

1

Begirada opaloan: herrixka bat mahasti lehorrez
koroatua,
Hodei grisen isila, labar horiak
Eta arrats-iturrien freskura: ispilu bikiak
Itzalez eta harri lirdingaz inguratuak.

Udazkeneko bide eta gurutzeak arratsean sartzen,
Erromes kantariak eta oihal odolduak.
Bakartiaren irudia bere baitara bildu
Eta badoa, aingeru zurbil, zuhaizti hutsean barrena.

Beltzetik jotzen du hegoak. Satiroekin bat eginda
Andretxo argalak; monjeak irrikaren apaiz zurbil,
Beren eromena lirioz apaindu eder eta ospel
Eta goratzen ditu eskuak Jainkoaren urrezko erlikia-
ontzira.

2

Bera bustiz, ihintz-tanta bat arrosa zintzilik
Erromeroan: airean dabil hilobi- eta
Ospitale-usaina, sukar-garrasi eta biraoz nahasi
betea.
Panteoitik eskeletoa altxatzen ustel eta gris.

Lirdinga urdinez eta beloz jantzita dantzan
agurearen andrea,
Krakaz zakartutako ilea malko beltzez betea,
Mutilak ametsetan nahasi sahats-kalpar lehorretan
Eta beren bekokiak legenarrez biluz eta elkor.

Arkudun leihotik arrats bat erortzen goxo eta epel.
Santu bat irteten da bere zauri beltzetatik.
Oskol apurtuetatik barraskilo purpurak irten
Eta odola okaztatzen dute arantzarte okerretan
zurrun eta gris.

3

Itsuak zauri zornetsuetan intsentsua zabaltzen.
Soineko gorri-urreak; zuziak; salmoak;
Eta neskak, jaunaren gorputza besarkatzen pozoia
bezala.
Irudiak oinez, argizari-zurrun, txingar eta ketan.

Legenardunen gauerdi-dantza gidatzen du zoroak
Hezurrak lehor. Abentura miragarrien lorategia;
Desitxura; lore-imintzioak, algara; izugarriak
Eta izarrak biraka arantzarte beltzean.

Oi pobrezia, eskale-salda, ogi eta porru samur;
Biziaren ametsak baso aurreko etxoletan.
Soro horien gaineko zerua gris gogortu
Eta arrats-ezkila batek jotzen du lege zaharrean.

Gau-kanta

Mugitugabearen arnasa. Animali aurpegi bat
Urdinean izozten, haren santutasuna.
Indartsua da isiltasuna harrian;

Txori gautar baten maskara. Hiruko doinu eztia
Bakarrean desegiten. Elai! Zure begitartea
Mutu makurtzen da ur urdinxken gainean.

Oi egiaren ispilu isilok!
Bakartiaren marfilezko lokian
Ageri da aingeru erorien isla.

Helian

Espirituaren ordu bakartietan
Eder da eguzkitan ibiltzea
Udako harresi horien alboan.
Urrats-hots emeak belarretan; baina lo darrai
Panen semeak marmol grisean.

Arratsean ardo marroiz mozkortzen ginen terrazan.
Mertxikak gorrixka distiratzen du hostoartean;
Sonata goxoa, algara alaia.

Eder da gauaren lasaitasuna.
Ordeka ilunean
Topatzen gara artzainekin eta izar zuriekin.

Udazken denean
Argitasun xumea azaltzen da zuhaiztian.
Bareturik goaz harresi gorrien alboan
Eta begi biribilak txorien hegadari segika.
Arratsean ur zuria hileta-urnetara erortzen da.

Adar biluzietan zerua ospatzen ari da.
Nekazariak esku aratzetan darama ogia eta ardoa
Eta baketsu umotzen dira fruituak ganbara
eguzkitsuan.

Oi zein zorrotza den hildako maiteen begitartea.
Baina ikuspen zintzoak arima pozten du.

Indartsua da lorategi erraustuko isila,
Nobizio gazteak bere bekokia hosto marroiz
koroatzean,
Bere arnasak urre izoztua edaten du.

Eskuek ur urdinxken adina ukitzen dute
Edo gau hotzean ahizpen masail zuriak.

Goxo eta harmoniatsua da gela atseginetan ibiltzea,
Non bakardadea dagoen eta astigarraren
zurrumurrua,
Non agian oraindik birigarroak kantatzen duen.

Eder da gizakia eta ilunpean agertzen,
Besoei eta hankei mirespenez eragiten dienean,
Eta begiak zulo purpuretan lasai biratzen.

Bezperetan desagertzen da arrotza azaroko
hondamen beltzean,
Adar ustelen azpian, legenarrez betetako
harresietan,
Non antzina anaia santua igaro zen,
Bere eromenaren doinu eztian murgildurik,

Oi zein bakarti bukatzen den arrats-haizea.
Hilzorian makurtzen da burua olibondoaren
ilunpean.

Hunkigarria da leinuaren gainbehera.
Ordu honetan betetzen dira ikuslearen begiak
Bere izarren urrez.

Gehiago jotzen ez duen karilloi bat arratsean
behera,
Erortzen dira plazako harresi beltzak,
Soldadu hila otoitz eske.

Aingeru zurbil
Sartzen da semea bere aiten etxe hutsean.

Ahizpak urruti joan dira agure zuriengana.
Lokartuak gauean aurkitu zituen ezkaratzeko
zutabeen azpian,
Erromesaldi tristetatik itzuliak.

Oi nola duten ilea zakartua gorotz eta zizarez,
Hura barruan oin zilartsuekin,
Eta haiek gela biluzietatik hilda irteten.

Oi gauerdiko euri sutsuetako salmoak,
Morroiek begi eztiak asunekin zigortzean,
Intsusaren fruitu umetsuak
Harriturik makurtzen dira hilobi hutsean.

Lasai biratzen dira ilargi horituak
Gaztearen sukar-izaren gainean,
Neguaren isilari segitu aurretik.

Patu goren batek hausnartzen du Zedronen behera,
Non zedroa, izaki otzan,
Aitaren bekain urdinen azpian zabaltzen den,
Belardian gauez artzain batek bere taldea darama.
Edo garrasiak aditzen dira lo-garaian,

Zuhaiztian brontzezko aingeru bat gizakiarengana
hurbiltzean,
Santuaren haragia burruntzi gorian urtzen da.

Mahatsondo purpurak buztinezko etxoletan gora,
Gari horituaren sorta ozenak,
Erleen burrunba, kurriloa hegan.
Arratsean elkartzen dira berpiztuak bidezidor
harritsuetan.

Ur beltzetan islatzen dira legenardunak;
Edo gorotzez zikindutako jantziak zabaltzen dituzte
Negarrez haize gozoari, muino arrosatik jotzen ari.

Neskame argalak gaueko karriketan haztaka,
Artzain maitea aurkituko ote.
Larunbatetan kanta eztia aditzen da etxoletan.

Kantak gogora dezala mutikoa ere,
Haren eromena, bekain zuria eta joanera,
Hondoratu dena, begiak urdinxka zabaltzen.
Oi zein tristea den berrelkartze hau.

Eromenaren mailak gela beltzetan,

Zaharren itzalak ate irekiaren azpian,
Helianen arima bere buruari begira ispilu arrosan
Eta elurra eta legenarra bekokitik erortzen.

Hormetan izarrak itzali dira
Eta argiaren irudi zuriak.

Hilobietako eskeletoak tapizetik irteten,
Gurutze hondoratuen isila muinoan,
Intsentsuaren gozoa gau-haize purpuran.

Oi zirtzilatutako begiok aho beltzetan,
Biloba nahasmendu eztiz dagoenean
Bukaera ilunean bakarti hausnartzen,
Jainko isilak betazal urdinez estaltzen du.